

Nola eskatu erakunde baten IFZ?

Edozein elkarte, fundazio eta abarrentzat, IFK (Identifikazio Fiskaleko Kodea) edo IFZ (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia) pertsona fisiko baten NANA bezalakoak dira, eta beharrezkoak izango dira elkarteak egiten duen edozein eragiketatarako: banku-kontu bat zabaltzea, egindako erosketen faktura bat jasotzea, zerbitzu bat emateagatik faktura bat igortzea, etab.

Erakunde baten IFZ [Foru Ogasunean](#) eskatzen da. Nahitaezkoa da erakundea legez erregistratuta dagoen unean eskatzea. Era berean, behin-behinean eska daiteke dokumentazioa dagokion erregistroan aurkeztu ondoren, onespeneren zain gaudenean.

Erregistroak erakundearen legezko inskripzioa baieztatzen duenean, Foru Ogasunari jakinarazi beharko zaio, eta erregistroak behin-behineko zenbakia behin betiko IFZ bihurtzeko onartutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Behar den dokumentazioa

- Erroldan alta egiteko [036](#) eredu, beteta.
- Elkartearen eraketa-aktaren, zuzendaritza-batzordearen eta estatutuen originala eta fotokopia, Eusko Jaurlaritzak, edo, elkartearen eremua estatukoa bada, erakunde eskudunak ikus-onetsiak.
- Errolda-aitorpena sinatzen duen pertsonaren IFZren fotokopia; elkarteko zuzendaritza-batzordeko kide bat izan behar du.
- Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan edo, elkartearen eremua estatukoa bada, dagokion erakunde eskudunean inskribatzeko ebazpenaren originala eta fotokopia.

Nola eskatu erakunde baten IFZ?

Zer da



Edozein elkarte, fundazio eta abarrentzat, **IFK** (Identifikazio Fiskaleko Kodea) edo **IFZ** (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia) **persona** fisiko baten **NANa** bezalakoak dira.

- ✓ Beharrezkoak izango dira elkarteak egiten duen edozein eragiketatarako: banku-kontu bat zabaltzea, egindako erosketen faktura batasotzea, zervitzu bat emateagatik faktura bat igortzea, eta.

Non eskatzen da



Foru Ogasunean dagokionan.

Behin-behinekoa



Eregistroan inskribatzea izapidetzen ari den bitartean eska daiteke.

Behar den dokumentazioa



- ✓ **036** eredua **beteta**.
- ✓ Eraketa-aktaren, **zuzendaritza**-batzordearen eta estatutuen **originala** eta fotokopia.



- ✓ Errola-aitorpena sinatzen duen pertsonaren IFZren **fotokopia**.
- ✓ Elkartearen Registroan inskribatzeko ebazpenaren originala eta **fotokopia**.